



GOIENA

2zio

Hitzak harrapatzen



Andrea Zubozki

Pasa den larunbatean, Aitzina Iparraldeko gazte mugimenduak kontzertuak antolatu zituen Hazparneko Ttattola gaztetxean. Bertan, 2zio taldea aurkitzen zen.

Nahiz eta han ez izan, haien ikusteko aukera izan dut pasa den hilabeteetan. 2015 honetako irailean atera daukute bigarren diskoa: *Bideak*. Eta geroztik kontzertuz kontzertu ibili zaizkigu.

Pertsonalki ez naiz biziki rapzalea. Baina euskal rapa geroz eta gehiago gusatzatzen zait, sustut 2ziorena egia erran. Rapean hitzek duten lekua biziki inportantea da, eta euskaraz direnez, gehiago hunkitzen naute. Horrez gain, 2zioren idazkera ederra da; hitzak “xuxenak” dira, neurri onetan kantatuak... Buruan errazki sartzen dira. Eta kontzertuetan ahotik ateratzen.

Beraz! 2zio! Hiru tipo eszena gainean. Gibelean, sample ta scratchetan, Jo. Honen ditu haien musikak sortzen, eta zuzenean berriz botatzen, *zkratxatzen*.

Rapeatzen du baita ere, hitzen inportantzia azpimarratuz.

Eszena aitzinean, Gorka eta Odei, biak rapeatzen. Haien lana perfektuki betetzen dute. Xuxen (bai! Rapeatzea ez da mintzatzea! Nota batzu badira!) erritmoan, oholtza okupatzen dute espazio guziak erabiliz. Bien ahotsak tonu apaletan kokatzen dira, eta horrek lasaitasun natural bat ekartzen du. Ez da rap ahots gora agresibo horietarik.

Publikoan, jendea ikus entzunari behatzen, begi eta belarriak aitzinerat zkotxaturik; eszena gaineko argiek deitzen gaituzte, eta soinua... min egiten dit horren idazteak... baina bai, ikaragarria da!

Min, ordenagailuak baino intsrumentuak nahiago baititut oholtzetan. Baina hala da, 2zioren musika ultra indartsua da (estilo horretan aurkitzen den musika bezala azken finean), baxuak ultra baxu dira, elementu perkusiboak ultra perkusibo... ez naiz luzatzen, ulertu nautzue!

HURRENGO KONTZERTUAK

ABENDUAK 18, ANOETAKO GAZTETXEAN
ABENDUAK 26, GASTEIZKO GAZTETXEAN

Arazo izpirik gabe, erraza da kontzertuan sartzea, naturalki jantzen da kaputxa!

Orain arte egin dituzten bi diskoetatik aukeratu kantuak eskaintzen dauzkigute zuzenekoetan.

Kontzertuan, biziki plazergarria da hitzak ezagutzen direlarik haiekin rapeatzea. Plazer hartzen dut haien hitzekin; gai orokorrez gain, urrunago doa taldea, gaur egungo munduari merezi zaizkion kritikak emanez. Eta onartuz gu ere mundu honen parte girela.

“Hibernazio-latz honi-emazkiok-zor-zaizkion-akzioak, fikzioa-gure errealitatearen-bizio bilakatu aitzin!” Horrelako esaldiak sortuz, kontzertutik sartu naiz etxerat!

Hara! Ene artikulua horretan bukatzen da! Azken esaldi bat hala ere bukatu aitzin; berrikitan agertu zaukun “euskal-musika-...” eztabaidari, hori gehitu nahi nuke: “Lasai! Oraindik talde onak badira Euskal Herrian!”

Eta 2zio haietako bat da. ■